

# A14 - Teknologia industrialia automobilgintzaren sektorean

Ikasleek automobilgintzako erronka erreal bati erantzun behar diote.

Ikasurtea

## 1. Batxilergoa

Data

**2024ko urtarrila - martxoa**

Lantzen diren irakasgaiak

**Marrazketa teknikoa  
Teknologia industrialia**

Jarduera mota

**Adituaren bisita erakundera**

Hizkuntza

**Gaztelera**

Irismen geografikoa

**Bizkaia**

Jarduera ematen duen erakundea

**Gestamp**

## Curriculumaren edukiak

Fabrikazio-prozesuak eta horiei lotutako teknikak eta materialak.

## Zer ikasten dute ikasleek?

Automobilgintzaren eta osagai-fabrikazioaren sektoreko fabrikazio-prozesuak hurbiltzea.

## Baliabideak

3D inprimagailua.

## Garapena

**1. ERRONKA JOTZEA.** Adituak enpresako fabrikazio-prozesuak azalduko ditu eta diseinu industrialari lotutako erronka erreal bat proposatuko du. Ikasleek erronka gelan landuko dute ikasturte osoan, taldeka, irakasleek lagunduta.

**2. FEEDBACKA IKASLEEN PROIEKTUEI.** Gestamp-eko profesionalak zalantzak argituko dituzte, eta azken feedbacka emango diete ikasleen lanei.

**3. IKASLEEN BALORAZIOA.** Ikasleek jardueraren balorazioa egingo dute.

Erronkaren aurkezpena ikasleen gelan egingo da, eta, jarduera amaitzean, Gestampen instalazioetara bisita egiteko aukera emango zaie irabazleei.